

MENDIALDEA MANKOMUNITATEA

COVID-19an POSITIBO EMAN DUTENEN ETA BERROGEIALDIAN DAUDEN PERTSONEN HONDAKINAK KUDEATZEKO JARRAIBIDEAK



Trantsizio Ekologikorako Ministeritzak emandako jarraibideak aintzat hartuta, COVID-19aren proban positibo eman duten edota berrogeialdian dauden herritarrek **EZ DUTE HONDAKIN BEREIZKETARIK EGINGO** eta **HONDAKIN GUZTIAK ERREFUSAREN EDUKIONTZIETARA BOTA BEHARKO DITUZTE ONDO ITXITAKO POLTSETAN.**

Jarraibideak

1go urratsa

Gaixo dagoen pertsonak sortutako hondakin guztiak (eskularruak, zapiak eta maskarak barne) plastikozko poltsa batean sartuko dira, gaixoaren gelan jarritako zakar-ontzi batean.

2. urratsa

Poltsa hau behar bezala itxi eta gelako irteeratik gertu egongo den plastikozko bigarren poltsa batean sartuko da. Bigarren poltsa honetan sartuko dira zaintzaileek edo gainontzeko pertsonak erabilitako eskularruak eta maskarak ere, eta ondoren ongi itxiko da.

3. urratsa

Bigarren poltsa hau gainerako hondakin guztiekin batera plastikozko hirugarren poltsa batean sartu eta ongi itxiko da. Segidan eskuak ongi garbituko dira ura eta xaboiarekin, minutu batez gutxienez.

4. urratsa

Zakar-poltsa errefusarentzako edukiontzian sartuko da. **Debekatuta dago gainontzeko edukiontzietan edo edukiontzien inguruan uztea.**

Gogorarazi nahi dugu gaixo edo berrogeialdian ez gauden herritarrok gure etxeko hondakinak ongi bereiztea inoiz baino garrantzitsua dela!!